



**EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO
BATZORDEKO BURUAREN UZTAILAREN 16KO 1/2009 ZIRKULARRA:
LURRALDEAREN ETA HIRIGINTZAREN PROZEDURETAN
INGURUMENAREN GAINEKO ERAGINAREN EBALUAZIO BATERATUA
SARTZEAREN INGURUKOA**

I. SARRERA

Zirkular honen helburua bikoitza da. Alde batetik, prozedura horien inguruan udaletatik eta lurraldearen eta hirigintzaren arloetako planak egiten espezializatuta dauden diziplina anitzeko taldeetatik jaso diren kontsulta edo/eta zalantza ugari erantzun bateratua eman nahi zaie; beste alde batetik, planak onartzeko prozeduran ingurumenaren aldagaia era zentzuzko eta naturalean sartu nahi da.

Arau berriak indarrean sartzean –hala nola, Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea eta zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioaren gaineko apirilaren 28ko 9/2006 Legea–, aldatu egin dira hainbat alderdi, bai funtsezko prozeduran, bai ingurumenaren arloko prozeduran. Legearen erregulazio berri hori egiteko, ingurumenaren arloko autonomia-erkidegoko legeria egokitu egin behar da, eta horretan ari dira Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailean: Euskal Herriko ingurumena babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra aldatzeko Aurreproiektua. Hori dela eta, arau berria ezarri arte, prozeduren eskemak lantzea pentsatu da, prozedura horiek era grafikoan ulertu ahal izateko. Lurralde-plangintza nahiz hirigintza-plangintza hartu dira, eta kasu bietan, plangintzetan funtsezkoak ez diren aldaketak ere bai; funtsezko prozedura eta ingurumen-prozedura laburragoak dira azken horietan.

Zirkular honek bere egiten du uztailaren 22ko 183/2003 Dekretuko Zioen Azalpena: ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen dekretukoa, alegia. Honako hau dio: *“Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa prozedura jakin baten bidez egituratzen da eta prozedura hori, halaber, plan eta programa desberdinak landu eta onartzeko prozeduretan sartuta dago. Planteamendu honen arabera, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazioa planaren tramitazioaren lehen faseetan abiarazten da eta bi prozedurek berdin dituzten uneak erabiltzen ditu aurreikusitako jarduketa desberdinei irtenbidea emateko. Horrela, plangintzarekin loturik dagoen erabakiak hartzeko prozesuan ingurumenaren aldagaia modu egokian sartzeari bermatzen da, planak onartzeko prozedura oztopatu gabe.”*



Beharrezkoa da, beraz, prozedura biak era koordinatuan bideratzea, eta aldi berean ere bai batzuetan, hasieratik Printzipio Nagusia ezarrita; printzipio horren arabera, finkatutako epean txostenik ez egiteak ezin ditu ondorengo izapideak gerarazi, epeak luzatzea ekiditeko. Izan ere, dagoeneko konplexuak eta luzeak dira, berez, planak onartzeko prozedurak.

II. ARAUDIA

II.1 Lurraldearen arlokoak:

- Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea.
- Lurraldearen Antolamendurako Artezpideen, Lurraldearen Zatiko Planen eta Lurraldearen Arloko Planen funtsezkoak ez diren aldaketak onartzeko prozedura arautzen duen irailaren 9ko 206/2003 Dekretua.

II.2 Hirigintzaren arlokoak:

- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.

II.3 Ingurumenaren arlokoa:

- Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioaren gaineko apirilaren 28ko 9/2006 Legea.
- Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.
- Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua.



III. PROZEDUREN ESKEMAK

1. LURRALDE-PLANGINTZA.

a) LZPak, LAPak ETA HAIEN FUNTSEZKO ALDAKETAK IDATZI ETA ONARTZEA

LURRALDE-PLANGINTZAREN PROZEDURA <ul style="list-style-type: none">Euskal Herriko Lurralde Antolakuntzari buruzko maiatzaren 31ko 4/1990 Legea.	INGURUMEN-PROZEDURA <ul style="list-style-type: none">Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioaren gaineko apirilaren 28ko 9/2006 Legea.Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua.
1.- Organo Sustatzaileak idatziko du Lurralde Informazioaren, Diagnostikoaren eta Hasierako Helburuen Agiria.	1 bis.- Aldi berean, erreferentziako dokumentua eskatuko da. (9. art., 9/2006 L.) 2.- Ingurumen-organoak eskabidea jasotzen duenetik gehienez ere 2 hileko epean emango du erreferentziako dokumentua , erasandako herri-administrazioei eta interesdunei kontsultatu ondoren. (9. art., 9/2006 L.) eta (6. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.</i>
3.- Organo Sustatzaileak Aurrerapena egingo du, eta entzunaldiaren izapidetik pasaraziko du, bai eta jendaurreko erakustalditik ere (Aurrerapenarena eta EsCIArena), iragarkia EHAAn txertatzearen bidez, eta erasandako aurretik identifikatuta dauden herri-administrazioei eta interesdunei kontsultatuko die, 2 hileko epe batean (LALren 13.4 art. eta 10. art., 9/2006 L.)	3 bis.- Aldi berean: a) ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako azterlana (iraunkortasuneko txostena) idazten da, eta hori erreferentziako dokumentuan ezarritakora egokitu beharko da. (9. art., 9/2006 L.), eta b) Sustapen-organoak atariko txostena eskatuko du, eskabide horri aurrerapena eta Escia (iraunkortasuneko txostena) erantsiz. (8. art., 183/2003 D.) 4.- Ingurumen-organo eskudunak ingurumenaren gaineko eraginaren atariko txostena emango du, bi hileko epean. (9. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du. (9. art., 183/2003 D.)</i>



<p>5.- Hasierako onespenerako dokumentua eta arauzko txostena idaztea, EHLABren aldetik. (13.5 art., LAL)</p> <p>6.- Sustapen-organoak hasierako onespena egingo du, jendaurreko erakustaldiarekin (EHAA, EAO, lurralde historikoko aldizkari ofiziala eta 2 egunkari) (2 hil) eta entzunaldia egingo die herri-administrazio interesdunei. (13.6 eta 13.7 art., LAL)</p> <p>7.- Sustapen-organoak behin-behineko onespena egingo du. (13.8 art., LAL)</p> <p>9.- EHLAB txostena, behin betiko onspenaren ondoren. (13.8 art., LAL)</p>	<p>8.- Plana behin betiko onarpenerako izapidetzeaz arduratzen den organoak behin betiko txostena ematea eskatuko du, eta onarpeneko agindua, alegazioen kopia eta erantzuneko txostena erantsiko dira. (11. art., 183/2003 D.)</p> <p>9 bis.- Ingurumen-organo eskudunak ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostena emango du, bihileko epean. (12. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du. (12. art., 183/2003 D.)</i></p>
<p>10.- Behin betiko onspena, dekretu bidezkoa, eta antolamenduko arauen kasuan kasuko aldizkari ofizialetan argitaratzea, bai eta Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpena ere, 183/2003 Dekretuaren 14. artikuluan I. eta II. eranskin gisa xedatutakoaren ondorioetarako. (13. art., LAL) eta (15. art., 183/2003 D.)</p>	



b) LZPen eta LAPen FUNTSEZKO EZ DIREN ALDAKETAK

LURRALDE-PLANGINTZAREN PROZEDURA	INGURUMEN-PROZEDURA
<p>1. Organo Sustatzaileak idatziko du Lurralde Informazioaren, Diagnostikoaren eta Hasierako Helburuen Agiria.</p> <p>3.- Hasierako onespenerako dokumentua eta arauzko txostena idaztea, EHLABren aldetik, aldaketako proposamenari buruz. (4.3 art., 206/2003 D.)</p> <p>4.- Sustapen-organoak hasierako onespena egingo du, jendaurrean jarriko du informazioa (EHAA, EAO, lurralde historikoko aldizkari ofiziala eta 2 egunkari) (1 hil). (4.4 eta 4.5 art., 206/2003 D.)</p> <p>6.- Sustapen-organoak behin-behineko onespena egingo du. (4.6 art., 206/2003 D.)</p> <p>7.- EHLAB txostena, behin betiko onspenaren ondoren. (4.6 art., 206/2003 D.)</p>	<p>1bis.- Aldi berean, erreferentziako dokumentua eskatuko da. (9. art., 9/2006 L.)</p> <p>2.- Ingurumen-organoak eskabidea jasotzen duenetik gehienez ere 2 hileko epean emango du erreferentziako dokumentua, erasandako herri-administrazioei eta interesdunei kontsultatu ondoren. (9. art., 9/2006 L.) eta (6. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.</i></p> <p>4 bis.- Sustapen-organoak honako hau egingo du, aldi berean: a) aurretik identifikatuta dauden eragindako administrazio publikoei eta herritar interesdunei kontsultatu, gutxienez ere 45 eguneko epe batean. (10. art., 9/2006 L.) b) ingurumenaren gaineko eraginaren txostena eskatzea, eskaera horri onartutako dokumentua eta Escia (iraunkortasuneko txostena) erantsiz. (16. art., 183/2003 D.)</p> <p>5.- Ingurumen-organo eskudunak ingurumenaren gaineko eraginaren txosten bakarra emango du, bi hileko epean. (16. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.</i></p>
<p>8.- Behin betiko onspena, dekretu bidezkoa, eta antolamenduko arauen kasuan kasuko aldizkari ofizialetan argitaratzea, bai eta Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpena ere, 183/2003 Dekretuaren 14. artikuluan I. eta II. eranskin gisa xedatutakoaren ondorioetarako. (4.8 art., 206/2006 L.) eta (15. art., 183/2003 D.)</p>	



2. HIRIGINTZA-PLANEAMENDUA

a) EsCIA BEHAR DUEN HAPO IDATZI, BERRIKUSI ETA AURRERAPENAREKIN ALDATZEA

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA <ul style="list-style-type: none">Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.	INGURUMEN-PROZEDURA <ul style="list-style-type: none">Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioaren gaineko apirilaren 28ko 9/2006 Legea.Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua.
<p>1. Sustapen-organoak aurretiazko azterlanak presatu, hirigintza-informazioa bildu, eta diagnostikoak eta hasierako helburuak proposatu ahal izango ditu, eta, dokumentuaren idazketa adostu ondoren, informazioa eskatu zaie organo eskudunei. (86. eta 90.1 art., 2/2006 L.)</p> <p>3.- Organo Sustatzaileak Aurrerapena egingo du, eta jendaurreko erakustaldiaren izapidetik pasaraziko du 2 hileko epe batean (90.3 art., 2/2006 L.)</p>	<p>1bis Aldi berean, erreferentziako dokumentua eskatuko da. (9. art., 9/2006 L.)</p> <p>2.- Ingurumen-organoak eskabidea jasotzen duenetik gehienez ere 2 hileko epean emango du erreferentziako dokumentua, erasandako herri-administrazioei eta interesdunei kontsultatu ondoren. (9. art., 9/2006 L.) eta (6. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.</i></p> <p>3bis.- Aldi berean, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako azterlana (iraunkortasuneko txostena) idatziko da, eta hori erreferentziako dokumentuan ezarritakora egokitu beharko da. (9. art., 9/2006 L.)</p> <p>4.- Sustapen-organoak atariko txostena eskatuko du, eskabide horri aurrerapena eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako azterlanean (iraunkortasuneko txostena) erantsiz, hasierako onespena eman aurretik. (17. art., 183/2003 D.)</p> <p>5.- Ingurumen-organo eskudunak ingurumenaren gaineko eraginaren atariko txostena emango du, bi hileko epean. (18. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du. (18 art., 183/2003 D.)</i></p>



<p>6.- Sustapen-organoak plana idazteko erabiliko diren irizpide eta helburuen erabakia hartuko du (plana idazteko eta/edo berrikusteko bada). (90.4 art., 2/2006 L.)</p> <p>7.- Sustapen-organoak hasierako onespena egingo du, jendaurreko erakustaldiarekin (lurralde historikoko aldizkari ofiziala eta egunkarietan), jakinarazi eta kontsultatuko die aurretik identifikatuta dauden herri-administrazioei eta interesdunei, gutxienez 45 eguneko epe batean. (90.5 art., 2/2006 L.) eta (10. art., 9/2006 L.)</p> <p>8.- Sustapen-organoak behin behineko onarpena egingo du (90.6 art., 2/2006 L.)</p> <p>10.- EHLAB txostena, behin betiko onespeneraren ondoren. (91.2 art., 2/2006 L.) <i>Jasotzen denetik batzordearen aldetik txostena eman gabe hiru hil igarotzen direlarik, izapidea jarraitu ahal izango da.</i> (91.3 art., 2/2006 L.)</p>	<p>9.- Plana behin-behinekoz onartu ondoren, plana behin betiko onarpenerako izapidetzeaz arduratzen den organoak behin betiko txostena ematea eskatuko du. (20. art., 183/2003 D.)</p> <p>10 bis. Ingurumen-organo eskudunak ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostena emango du, bi hileko epean. (21. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.</i> (21. art., 183/2003 D.)</p>
<p>11.- Behin betiko onespena, udalen/foru-aldundien aldetik, eta antolamenduko arauen kasuan kasuko aldizkari ofizialetan argitaratzea, bai eta Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpena ere, 183/2003 Dekretuaren 23. artikuluan I. eta II. eranskin gisa xedatutakoaren ondorioetarako. (89.5 eta 91.4 art., 4/2006 L.) eta (24. art., 183/2003 D.)</p>	



b) **EsCIA BEHAR DUEN HAPO AURRERAPENIK GABE ALDATZEA**

HIRIGINTZA-PLANGINTZAREN PROZEDURA <ul style="list-style-type: none">Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko ekainaren 30eko 2/2006 Legea.	INGURUMEN-PROZEDURA <ul style="list-style-type: none">Euskal Herriko Ingurugiroa Babesteko otsailaren 27ko 3/1998 Lege Orokorra.Zenbait plan eta programak ingurumenean duten eraginaren ebaluazioaren gaineko apirilaren 28ko 9/2006 Legea.Ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluazio-prozedura arautzen duen uztailaren 22ko 183/2003 Dekretua.
<p>1. EsCIA behar duen HAPOren aldaketaren lehenengo dokumentuaren aurretiazko zirriborua/azterlana idatziko da. (86. art., 9/2006 L.) eta (9. art., 9/2006 L.)</p> <p>3.- Aldaketaren lehenengo dokumentua idatziko da (90.4 art., 2/2006 L.)</p> <p>6.- Sustapen-organoak hasierako onespena egingo du, jendaurreko erakustaldiarekin (lurralde historikoko aldizkari ofiziala eta egunkarietan), jakinarazi eta kontsultatuko die aurretik identifikatuta dauden herri-administrazioei eta interesdunei, gutxienez 45 eguneko epe batean. (90.5 art., 2/2006 L.) eta (10. art.,</p>	<p>1bis- Aldi berean, erreferentziako dokumentua eskatuko zaio ingurumen-organoari.</p> <p>2.- Ingurumen-organoak eskabidea jasotzen duenetik gehienez ere 2 hileko epean emango du erreferentziako dokumentua, erasandako herri-administrazioei eta interesdunei kontsultatu ondoren. (9. art., 9/2006 L.) eta (6. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.</i></p> <p>3bis- Aldi berean, ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako azterlana (iraunkortasuneko txostena) idatziko da, eta erreferentziako dokumentuan ezarritakora egokitu beharko da. (9. art., 9/2006 L.)</p> <p>4.- Sustapen-organoak atariko txostena eskatuko du, eskabide horri planaren lehenengo dokumentua eta ingurumenaren gaineko eraginaren baterako ebaluaziorako azterlanean (iraunkortasuneko txostena) erantsiz, hasierako onespena eman aurretik. (17. art., 183/2003 D.)</p> <p>5.- Ingurumen-organo eskudunak ingurumenaren gaineko eraginaren atariko txostena emango du, bi hileko epean. (18. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du. (18. art., 183/2003 D.)</i></p>



<p>9/2006 L.)</p> <p>7.- Sustapen-organoak behin behineko onarpena egingo du (90.6 art., 2/2006 L.) eta (20. art., 183/2003 D.).</p> <p>9.- EHLAB txostena, behin betiko onespeneraren ondoren. (91.2 art., 2/2006 L.) <i>Jasotzen denetik batzordearen aldetik txostena eman gabe hiru hil igarotzen direlarik, izapidea jarraitu ahal izango da.</i> (91.3 art., 2/2006 L.)</p>	<p>8.- Plana behin-behinekoz onartu ondoren, plana behin betiko onarpenerako izapidetzeaz arduratzen den organoak behin betiko txostena ematea eskatuko du. (20. art., 183/2003 D.)</p> <p>9 bis.- <u>Ingurumen-organo</u> eskudunak ingurumenaren gaineko eraginaren behin betiko txostena emango du, bi hileko epean. (21. art., 183/2003 D.) <i>Epe hori txostena egin gabe igarotzen bada, prozedurak aurrera jarraitu ahal izango du.</i> (21. art., 183/2003 D.)</p>
<p>10.- Behin betiko onespena, udalen/foru-aldundien aldetik, eta antolamenduko arauen kasuan kasuko aldizkari ofizialetan argitaratzea, bai eta Ingurumenaren gaineko Eraginaren Adierazpena ere, 183/2003 Dekretuaren 23. artikuluan I. eta II. eranskin gisa xedatutakoaren ondorioetarako. (89.5 eta 91.4 art., 4/2006 L.) eta (24. art., 183/2003 D.)</p>	

Vitoria-Gasteizen, 2009ko uztailaren 16an.

**EUSKAL HERRIKO LURRALDEAREN ANTOLAMENDURAKO
BATZORDEKO BATZORDEBURUA**

Sin. / Fdo.: Pilar UNZALU PÉREZ DE EULATE